

BURUZKO PROBLEMAK (bp 10)

1.- Bi metroko oihal batekin 50 zentimetroko mukizapiak egin nahi ditut. Zenbat mukizapi aterako zaizkit?

2.- 9 ume daude eta bakoitzak 10 arkatx dauzka. Norberak bi galtzen baditu, zenbat arkatx daukate denon artean?

3.- Kromo-bilduma hasteko nire aitak 15 kromo eman zizkidan eta nik 27 erosi ditut. Zenbat kromo dauzkat orain?

4.- Mirenek bost euroko bost billete besterik ez ditu, 36 euroko disko bat erosteko. Zenbat falta zaio?

5.- 100 eurokin, 4 euroko zenbat aldizkari eros dezaket?

6.- Zortziak eta laurdenetan jaikitzen banaiz eta hogeita hamabost minutu beranduago ateratzen banaiz etxetik, zer ordutan ateratzen naiz?

7.- Ikasgela batean 25 ikasle daude. Balo baten salneurria 75 eurotako da. Zenbat jarri behar du bakoitzak baloia erosteko?

8.- Tennis erraketa batengatik 85 € ordaindu behar izan dut. 5 eurotako zenbat billete eman behar izan ditut?

9.- Hirugarren mailan 31 neska eta 15 mutil gara. Zenbat neska, mutil baino gehiago dago?

10.- Atletismo pista batek 400 metro neurtzen du, Zenbat buelta eman behar dira 4000 metro ibiltzeko?